

## “ONOMASTICON VASCONIAE” SORTAREN LEHEN LIBURUAREN AURKEZPENA IRUÑEAN

*Endrike Knörr*

Ekainak 21, 1986, Euskaltzaindiaren Iruñeko Ordezkaritzan, egin zen Jimeno Jurío jaunaren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur* liburuaren aurkezpena.

Aurkezleak izan ziren: J.M. Satrustegi, Euskaltzaindiaren Idazkaria eta Nafarroako Ordezkarria; Endrike Knörr, Onomastika Batzorde-burua; Ricardo Cierbide, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, eta José María Jimeno Jurío bera. Entzulego ugaria izen zen, bertan euskaltzain oso eta urgazle batzu. Román Felones Nafarroako Kultur Kontseilariaren izenean Javier Iturbide, “Príncipe de Viana” Erakundearen zuzendaria etorri zen.

Satrustegi jaunaren hitzekin eman zitzaion hasiera aurkezpenari. Liburua goraiatu zuen, eskaintzen zuen informaziogatik eta erabilitako zehaztasunagatik ere. E. Knörr-en ustez, onomastika-alorrean eginkizun asko dira eta liburu hau eredu gertatuko da ondoren datozenentzat. Leku-eta lagun-izenak errespetatu behar zirela, esan zuen, historiak utzitako ondare direlako, eta gaitzetsi zituen kaleak eta hirigintzak bataiatzeko maiz sortzen diren izenak (“Las Gaviotas”, “Los Olmos”, e.a.), azken modaren ispilu.

R. Cierbidek bere poztasuna erakutsi zuen “Onomasticon Vasconiae” sortako lehen ale honengatik eta Jimeno Juríoren ikerketa-lanaren merezimendua laudatu.

Azkenik, egilea mintzatu zen, bere lanean lagundu zioten guztiei eskerrak emanez. Toponimia-bilketan premia azpimarratu zuen, herri asko hustutzen ari bait dira eta zaharrak hiltzen.

Euskaltzainek hala eskaturik, Javier Iturbide jaunak ere hitz egin zuen. Garrantzi handiko proiektua zela, esan zuen “Onomasticon Vasconiae” sortaz, eta Nafarroako Gobernua beste ale batzu diruz babesteko prest legokeela gaineratu.

*Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur* liburua Eusko Jaurritzaren diru-laguntzaz argitaratu da.